

## EPE: zuhaitzek ez dezatela galarazi basoa ikustea

**Sinaturiko akordioak Egonkortasun Akordioaren jarraipena eta lan-poltsetan dagoen egungo langileriaren lehentasuna bermatzen ditu**

Unibertsitate honen historian lehen aldiz Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio lan kontratudunen EPE deialdiari. Sindikatuen gehiengoak (UGT soilik geratu da kanpoan) sinaturiko **minimoen akordio hau** ez dago gutxi batzuegan bakarrik pentsatua, **prozesu selektibo ostean jarraitzeko bermea pertsonal guztiari eskaintzen dion testua da; bai egonkorrei eta bai plaza hutsetako pertsonalari ere**. Gainera, etorkizunean emango diren hautatze prozesuetarako oinarriak finkatzen ditu, UPV/EHU orain artean eza-gutu ez diren era bereziki abantailatsu batean hain zuten. Eta oraingoan bai, lan kontratudun eta funtzionarioentzako izango da... egonkorrak izan edo aldi baterako langileak izan.

Berri txar bat eman behar dizugu, zu engainatzen saiatu dira... otso gaiztoa ipuinetako pertsonaia besterik ez da eta Merezimendu Lehiaketa belarrientzako opari bat, baina aldi berean pozoidun goxokia da.

Berri ona berriz akordio bat lortu dugula da, zeinaren bidez etorkizuneko EPE deialdiak AZPko langileria guztiarentzat apartak diren baldintzetan egingo diren, bai egonkorrentzat, bai aldi baterako langileentzat eta bai behin behinekoentzat.

Horrela, UPV/EHUk lan kontratudun langileriarekiko duen zor historikoa kitatzeari ekiten dio.

### Hauteskundeei begira eginiko eskaintza

Negoiazioa luzatu egin da azken hilabete hauetan zehar, otsailean Administrazioak, azken urte honetan erretiratu den langile kopuruaren berdina den plaza kopuruarekin (*100% berritze tasa*, Rajoy-ren Gobernuak 2016an onartua), EPE deialdia egitea proposatu zuenetik.

Orduz gero, etengabeak izan dira tira bira beraien lanpostua finkatzeko bermea eskaintzen dien akordio hau lortu ahal izateko. Eta berme hori ez da 22 urte baino gehiago daramaten arren lanpostu finkoa lortzeko aukerarik izan ez duten lankideentzat bakarrik, baita UPV/EHUrak ondoren iritsi direnentzat ere.

Negoiazioa nahiko trabatua zegoelarik, bat-batean Administrazioak aho zabalik utzi gintuen eskaintza luzatu zuen: Merezimendu Lehiaketa Oposizio Lehiaketa orde. Hau guztia, berarekin zekarren arrisku juridikoa ezagututa gainera.

Sindikatu gehienon zerbitzu juridikoek horrelako prozesu batekin aurrera egin ez gero, auzitegian helegite batekin amaitzeko aukera izugarria zela erreparatu zuten.

Administrazioak UGT-ren aurrean amore eman eta beste sindikatuon adostasuna eskatzea ulertzen dugu... azken finean hauteskundeen ateetan daude eta salmentarako argumentuak behar dituzte. Hauteskunde ondoren gertatuko dena...

Ulertzen ez duguna, AZPa defendatzen duela esaten duen sindikatu batek bakarrean horrelako prozesu arriskutsu baten alde apustu egitea da. Zeinak, 2006an sinaturiko Egonkortasun Akordioa baliorik gabe utzi dezake, eta horrek, AZPko langileria zati handi batek lorturiko eskubideak eta gaur egun lan poltsetan dagoen jendea arriskuan jartzen ditu.

### Zenbat plaza?

Rajoy-ren murrizketak direla eta EPE-ak galarazita zeuden urte batzuk pasa ondoren, 2015ean %50 birkokapen tasa onartu zen eta 2016an berriz %100. Horrela, guztira 44 plaza suposatu ditu. Prozesu selektiboa garatzeko (azterketa) 3 urte ditugula kontuan izanik, helburua 2016 eta 2017ko birkokapen tasek baimentzen dizkiguten plazak elkartzea da.

Proposamenak egonkorrek diren lan kontratudunen plazak izatea aurreikusten du; zeintzuk, 2006ko Egonkortasun Akordioa dela medio, tratamendu berezia daukaten eta prozesua gainditu ezean beraien kategoria eta espezialitatean zerbitzua ematearen erlazioa mantentzen zaien. Beharra atzeman den zerbitzuak dira eta beraz, birkokapena ziurtatua dago.

### AZP guztiarengan pentsaturiko EPE-a

Aipaturiko plaza kopuruaz osaturiko EPE-a eskasa da, baina etorkizunerako baldintza ezin hobekak negoziatu ahal izateko atea ireki digu. **Eta hauxe izan zen steilas-ek finkaturiko beste helburuetako bat**. Langileria osoari iraunkortasuna bermatuz hurrengo urteetan gauzatuko diren prozesu selektiboetarako oinarriak finkatzeko aukera paregabea aurkezten

### Zergatik oposizio-lehiaketa eta ez lehiaketa hutsa?

Meritu hutsezko EPE-a juridikoki arrisku handia duen bidea da eta gainera, 2006an ELA, LAB, CSIF eta steilas sindikatuek sinaturiko Egonkortasun Akordioa baliorik gabe utzi dezake; non erabili beharreko aukeraketa sistema oposizio-lehiaketa izan behar dela esplizituki adierazten baita. Akordio honek AZPko gehiengo garrantzitsu baten mesederako diren funtsezko 3 atal bermatzen ditu: 3 EPE gauzatu artean bakoitzari dagokion talde/kategoria/espezialitatean lana mantentzea, emandako zerbitzuekin %45 arteko puntuazioa lortzeko aukera izatea eta **gaur egun lan-poltsetan dagoen langileria hautaketa prozesu hauetatik etorriko direnen aurrean lehentasuna ematea**.

Maiatzean ELA, LAB eta **steilas** sindikatuok Administrazioari azalpenak eskatu eta ostean, **baietz BALDINTZATUA eman genion merezimendu lehiaketari, BETI ERE Egonkortasun Akordioa** eta bertatik ondorioztatzen diren lan-poltsen antolaketa arriskuan jartzen ez baziren. Administrazioak orduan biderik arriskutsuena zela onartu eta atzera egin zuen OPOSIZIO-LEHIAKETA berriro mahai gainean jarriz.

# Kontatzen ez dizutena

## Merituen lehiaketa ez da oparia.

Araudiak antzinatasunaz gain beste kontzeptu batzuk kontuan izatera behartzen gaitu (euskerak,...). Gainera, titulazio akademikoak, kurtsuak, beste hizkuntza batzuk, etab. ere kontuan hartu beharko genituzke [Cordobako Unibertsitatean](#) (UCO) 2008-2009an atezaintzako langileriarri egin zitzaion bezala. 2010etik aurrera, juridikoki dituen ziurtasun ezak direla eta, UCO berak ere ez du begi onez ikusten eredu hau berrerabiltzea. Beharrezkoa da gogora ekartzea, EHU/UPV-k ez duela berezko formakuntza-planik izan 2010. urterarte; eta beraz, AZPko zati batek ez du ez formakuntza ezta promozio aukerarik izan.

**Kategoria/espezialitate/eskala-ren arabera EPEa.** Akordioaren sarreran kategoria edota eskala bakoitzeko deialdi bakarra egingo dela adierazten da. Eta beraz, plaza horiek aukeraketa-prozesua guztiz gauzatu artean ez dira berriz aterako. Horrela, talde horretan lanean ez dauden langile egonkorrek ez dute egonkortasun akordioak eskaintzen dizkien hiru aukeretako bat xahutuko.

**Eta helegiteren bat aurkeztuko balute... Zer gertatuko litzateke ba?** Nahiz eta aipatutako eragozpenak ezagutu, jende askok pentsatuko du zergatik ez garen lehiaketa hutsaren bidetik saiatzen, eta helegitea aurkeztuz gero beti izango genukela galdetegi itxiko aukerara itzultzea.

Lehiaketa hutsari behin errekurtsua jarri eta prozesua bertan behera geratu ostean jatorrizko eredura bueltatzea litzateke aukerarik errazena, hau da, gai-zerrenda irekia. Gainera, errektore taldearen aldaketarekin ezingo genuke bermatu baldintza berdinetan negoziatzen jarraitzeko aukera.

zitzaigun. Eta ez bakarrik 2006ko Akordioak babesten ditueni, baita, nahiz eta antzeko egoeran zeuden arren; orduan horrelako zortetik izan ez zutenei ere. Eta nola ez, ondoren etorri diren arren, beraien lanpostua kontsolidatzeko aukerarik izan ez dutenei bai lan kontratudun langileei eta bai funtzionarioei.

## Nola izango da prozesua?

EPE batean deialdia bera eta prozesu selektiboa zer diren ondo ezberdindu behar ditugu. Deialdiaren kasuan, Unibertsitatea urtero deitzera behartuta dagoen (EBEP art. 70.2) plaza kopurua buletin ofizialean argitaratzeaz buruz ari gara.

Prozesu selektiboak aldiz, aipatu dugun argitaratzean hasi eta lehiaketa-oposizio (meritu-azterketa) amaiera arte iraungo du. Legeak gainera, prozesu honen iraupena 3 urtekoa izatea ahalbidetzen du.

## EPE oinarri abantailatsuak

**Oposizioa fasea:** proba teoriko praktikoa derrigorrak baina ez baztertzailak diren bi probaz osatuko da eta guztira 20 puntu izango dira. Steilasek galdetegi itxia proposatzen du bai atal teoriko eta bai atal praktikoa. I/A1 Talderako 1000 galdera, II/A2 talderako 800, III/C1 talderako 600, IV/C2 talderako 500 eta E talderako 400. Atal praktikoa aldiz oinarri espezifikoa adieraziko diren bi aukeren artean hautatu beharko da, non bietako bat beti galdetegi itxia izango den. Bi kasuetan ez da gaizki erantzundako galderengatik penalizatuko.

**Lehiaketa fasea:** Gehienez 9 puntu.

Dagokion kategoria eta espezialitate edota eskalan emandako zerbitzuak

12,5 urtekoak izanez gero, atal hone-tako maximora iristen da. Gainera, titulazio akademikoengatik beste puntu bat lor daiteke eta hizkuntza ez ofizialengatik (ingelera, frantseza eta alemaniera) gehienez 1,5 puntu.

**Euskerak:** hizkuntza eskakizuna daukan plaza bat aukeratzean, gai kalifikazioa lortuko dute plazari dakogion hizkuntza eskakizuna daukaten pertsonak. Aldiz, derrigorrezko data ezarri gabe daukaten plazaren kasuan lortuko duten puntuazioa 2007ko EPEan ezarritako irizpideei jarraituz lorturiko berbera izango da.

## Konklusioak

**steilas** beti ezberdindu da Unibertsitatean enplegu publikoa defendatzeagatik baldintza hoberenetan. Badakigu EPE honek behar eta arazo guztiak ez dituela konpontzen, batez ere gaur egun daukagun behin-behineko tasa dela eta. AZPko funtzionarioen %52a eta lan kontratudunetan %80a baino gehiago behin-behinekoa da. Honegatik guztiagatik eta, Rajoyk eta Bruselasek inposatutako murrizketak direla eta, ez dugu desaprobatxatu izan nahi oinarri bikain batzuk negoziatzeko aukera. Gogoratu behar dugu sinatutako akordioari esker, etorkizunean etorri liratekeen EPEetako prozesu selektiboetan aplikatu daitekeela.

Prozesuan aurkeztzen diren langile egonkorrek bi aukera dituzte: kategoria/espezialitate beran lanpostua mantentzea, edo behin-betiko lanpostua lortzea. Egoera ezinhobea plaza egonkortzeko.

## Beldurraren estrategia

Beldurra beti izan da demagogiaren aliatu ona eta hori UGTk ondo dakienez, lan-kontratudunak beldurtzen saiatzen da kalean geldituko direla esanez. Legitimoa da, baina ez da erantzukizun berean.

**Bere komunikatuetan** (lan-kontratudunei soilik bidalitakoak) juridikoki oso arriskutsua den eta bertan behera geratu daitekeela oso argi ikusten den (ez baitituzte, adibidez, Euskera bezalako derrigorrezko meritua kontuan hartzen) proposamena aurkeztzen dute. Horrez gain, beste prozesu selektibo batzuetan ere hitz egiten dute, Cordobako unibertsitatearena adibidez; zein unibertsitate hori bera ez den errepikatzen ausartzen sistemak beharrezkoa den sendotasun juridikoa falta duelako. Eta are gehiago, UGTk saldu dizkigunak baino [oinarri gogorragoekin gauzatu zen](#) prozesu hura.

Plaza hutsetako langileria kalera joango dela, 3 deialdietan plaza berberak aterako dituztela eta botako zaituztela... "Salvame"-ren estiloa jarraituz (bakoitzak erabaki dezala "limón", "naranja", edo "marrón") eta jokoz kanpo geraterik nahi ez dutenez, zarata egiteari ekin diote benetan gezur bikoitzak diren erdizkako egiak hedatuz.

Sindikatu gehienok, bai orain eta bai geroagorako, abantailak eskaintzen Akordio honen alde apustu egin dugu. Horrela, negoziazioan **steilas**en aldetik parte hartu duten 4 pertsonen artean lan-kontratudunak dira (egonkor eta ez egonkorak). Sindikatu gehienok beste bide batzuk jarraitzearen arriskua ikusi dugu. Egonkortasun Akordioa eta aurreko EPEa salatu zituen barregarri gelditu zen UGT eta prozesu hau bukatzean ere berdina gertatuko zaio. Kezkaren bat baldin baduzu jakin **steilas**-eko ateak irekita dituzula. Zure zalantzak argituko dizkizugu.